



202. zenbakia

· ABENDUA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi,
Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia,
Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken
parte hartzen duzuenak, banatzaileak,
etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Lurra.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Armiarma izpilikuan.
Egilea: Maika Iraizotz

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira abenduaren 6an bidalia



HALABEHARRA Igor Estankona (Moskito, 2020)

*“ Hodeiak jotzen duenean
euriak badaki
udazkena baino lehen, lehen seinaleekin
hostoek badakite ahariak dakiena zahartzaroan, alegia
egun batez gaua izango dela
leioa ireki eta gure eguna
leioa ireki eta gure eguna, noski
eta orduan herensugea iritsiko da ondorio batera, hots
gizakien bihotzek badakitela ezpainek ezer esan orduko
eta ama batek badaki minaz eta plazeraz eta ibaiez
eta sailburuak badaki dutxatzen denean
eta suak badaki oxigenoa jan ahala
horregatik lurruna, kea, eta askotan ez da ezer ikusten
memoriaren trenetik, soilik zelai zuriak
hiririk gabe elurraren
beste muturrean, eta hil denak badaki
baina zuk ez eta hala ere
sumatzen duzu zerbait, ez da hala?*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

**top
topa**.shop

abenduaren 9tik aurrera

Nafarroako tokiko
merkatariorik plataforma
berri hau eraiki dugu, gure
produkturik hoberenak zure
etxetik bertatik disfrutatu
ahal izateko.

**Sartu Toptopan
eta topatu Nafarroako
top produktuak
eta top dendak.**

Begoña Rastrilla Gomez, Muskitz

“Txikitako oroitzapenak iratzarri zaizkit Muskitzera etortzean”

Burgosen jaio zen Begoña Rastrilla Gomez, Olmillos de Sasamón herrian. Baina 16 urte zituenetik bizi da Nafarroan. Iruñean lehenengo, urte askoz, eta Muskitzen azken 10 urteetan, Martiñean. Maitasunak ekarri du Imotza, duela 15 urte Jose Antonio Garbisu ezagutu zuen, berarekin eta herriarekin maitemindu zen, eta ezta hiltzen denean ere ez dutela hortik aterako dio. Langilea, hainbat lanbidetan aritu da: oihal fabrika batean 15 urtez, garbiketa lanetan ondoren, 10 urtez, eta etxex-etxeko laguntzan beste hainbat. Bestetik, margotu izan du urte askotan; baina, orain, dantza, yoga eta, batez ere, irakurle taldean aritzea gustatzen zaio gehien. Tartean, Pulunpe banatu ere banatzen du Muskitzen.

• Gazte-gaztea zinela etorri zinen Nafarroara?

Etorri baino gehiago, ekarri egin ninduten. Nik ez nuen nahi baina 16 urte nituela aitak opusera ekarri ninduen. Gerora opusetik atera nintzen, baina Nafarroan gelditu nintzen. Lanean jarri nintzen oihal fabrika batean, Iruñean. Tartean ezkondu nintzen eta seme bat dut nire aurreneko senarrarekin. Jose Antonio 2005ean ezagutu nuen, San Jose egunean. San Bartolome ermita zaharberritzen ari ziren, eta beste asko hurbiltzen ginen laguntzera. Oso polita izan zen. Bazkaltzeko elkartzen ginen eta

barre algaren artean bukatzen genuen lana. Orduan ezagutu nuen Jose Antonio. Bihozbera eta oso langilea da, oso pozik naiz berarekin.

• Maitasunak ekarri zintuen hona, pozik zaude Muskitzen?

Natura eta animaliak asko maite ditut, hemen haiekin kontaktuan nago, txikitako oroitzapenak esnatu zaizkit. Besteekin ulerkorra eta errespetu handikoa den herri batean bizitzea tokatu zait. Hasieran pixka bat gogorra izan zen, baina nire lekua bilatu dut eta orain oso pozik bizi naiz Muskitzen. Orain ez dut Iruñera joan nahi ezertarako. Iruñean pisu batean bizi nintzen, eta, bai, bizilagun asko ginen, baina zure etxean sartzen zinen, atea itxi, eta bakardade hutsa zen hori.

• Muskitzen geldituko zara orduan?

Noski! 7 urte behar izan ditugu hor merenderoa paratzeko. Semeari esan diot hor uzteko nire errautsak, ez naute hemendik mugituko ezta hil eta gero!

• Gazterik ba al da Muskitzen?

Batzuk bai, Itsasonean hiru pisu egin zituzten eta hor gazte batzuk bizi dira. Gero ondoko etxea zaharberritu behar dute, bikote gazte bat ere etorri da, bat Sevillakoa eta bestea gipuzkoarra... hau ez da zaharrez osatutako herri bat, ez! Igandeetan Bermuskitz egiten genuen eta oso

polita izaten zen, haurrak, gazteak eta zaharrak elkartzen ginen eta denok batera jostaketan aritzen ginen. Orain egoera honekin gelditu behar izan dugu. Udan ere elkarrekin joaten ginen inguruko herrietako pestetara. Non egon behar dut Muskitzen baino hobeki.

• Atezko euskal dantza taldean ibili zarete, ez al da horrela?

Bai, Eritzen, Atetzen. Niri betidanik asko gustatu izan zait, Jose Antoniori, ordea, ez zitzaion gustatzen baina animatu zen. Ia 20 lagun ibiltzen ginen, familia bezala hartu gintuzten bertan, oso jatorrak dira eta oso pozik gara bertan, asko maite ditugu. Oso ongi pasatu dugu bertan, eskola jaialdietara, gaztanberaren egunean eta horrelakoetan ere joan gara dantzatzera. Baina niri belauneko mina hasi zitzaidan eta...

• Dantza bakarrik ez, gauza gehiago egiten dituzue, ezta?

Eskerrak eman nahi dizkiogu Basaburuko eta Imozko udalei 60 urte gorakoei zuzendutako yoga diruz laguntzen dutelako. Astean bitan yogara joaten gara eta eraberrituta itzultzen gara. Laia eta Txetxu irakasleak, gainera, oso jatorrak dira. Bestalde, Irurtzunen irakurle taldearekin ibiltzen gara. Zortzi urte daramagu eta nire bizian egin dudana gauzarik interesgarrienetakoa da.



▲ Begoña Rastrilla Gomez, Muskitzko Pulunpe banatzailea, etxeko atarian, Martiñean.



Pandemia garaian etorri zaigu Euskaraldiaren bigarren edizioa, gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin euskaraz aritzeko helburuarekin

Gehiagok ez, baina izurritearen erdian, gehiagotan eta gehiagorekin euskaraz aritzeko asmo irmoarekin Euskaraldia batu dira gurean ere bai. Eskualdean, guztira 377 lagunek eman dute izena bigarren edizio honetan, 2018koan baino 135 gutxiagok. Pandemiak, gainera, izugarri mugatu ditu egitasmoa zabaltzeko lanak, programazioaren zati handi bat bertan behera gelditu baita. Izena eman dutenen artean, gehienak ahobiziak eta emakumeak izan dira. Gainera, ariguneak sortu dira aurten: euskaraz hitz egiteko toki seguruak. 11, osotara, Ultzama aldean.

2018an sortutako egitasmoa da Euskaraldia, euskaldunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala. Helburu nagusia euskararen erabilera handitzea baita, eta, horretarako, bi rolen artean aukeratu, eta rola zein den adierazten duen txapa jantzi behar da soinean: belarriprestak, euskaraz hitz egin ez, baina ulertzen dutenak dira; eta ahobiziak, euskaraz hitz egiteko gai direnak. Horrela, euskaraz ulertzeko edo hitz egiteko gai direnak erraz identifikatu daitezke elkarren artean, hizkuntza ohiturak aldatzeko lehen pausua.

2018an izan zen lehenengo edizioa eta aurten, azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean izan da bigarrena. Aurtengo leloa: "gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" da.

Izen-ematea, txikiagoa

Bigarren edizio honetan izen-emateak behera egin du, bai orokorrean, baita gure eskualdean ere. Euskal Herria osoan 200.000 pertsonak eman zuten izena 2018an. Aurtengo edizioan, berriz, 180.000 .

Gurean, 377 pertsonak eman dute izena Euskaraldian, 135 gutxiago dira aurreko edizioarekin konparatuta. Horietatik %75 ahobizi dira eta, %25 belarriprest. Parte-hartzaile gehienak, gainera, beste leku askotan bezala, emakumeak izan dira: guztien %65.

Felix Altzelai eskualdeko euskara zerbitzuko arduradunak horrela uste du: "Egoerak, egia esan, ez du batere

Hizkuntza ohiturak aldatzeko egin da Euskaraldia baina pandemiak giza harremanak aldatu ditu

laguntzen, giza harremanetan aldaketak egon baitira. Hizkuntza ohiturak aldatzeko egin da Euskaraldia, baina pandemiak giza harremanak aldatu ditu bitartean. Hori izan daiteke jaitzieraren azalpen bat. Benetan jaitziera egon baldin bada, askok eta askok ez baitzuten izena emanen pentsatzen zutelako ez zutela eman behar. Jende askok komentatu izan du, 'izena berriz eman behar al genuen? Eman ere eman genuen duela bi urte!' eta beste batzuk pentsatuko zutelako 'nik ia egiten dut egin beharrekoa eta ez dut txaparik behar'. Faktore asko egon dira".

Gainera, Euskaraldia bultzatzeko antolatutako ekimen asko bertan behera gelditu dira gurean: Etxalekuko etheen historia ezagutzeko ibilaldia, Txor Txor bakarriketa umoretsua, Latasan; Iker Uriberen murala margotzeko auzolana Urritzan..."



Entitateen agerraldia Tabakaleran ▲



Leire Etxeberria iraizoztarra ahobizi gisa eman du izena aurtan



Baina helburua, gehiago

Pandemiak pandemia eta oztopoak oztopo, badago hizkuntza ohiturak aldatzeko konpromisoa berretsi nahi izan duenik.

Hori da Leire Etxeberria iraizoztarraren kasua, gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin euskaraz aritzeko erronka hartu du aurtan eta 2018an belarriprest gisa izena eman bazuen, aurtan ahobizi izatera pasatu da:

"Aurreko Euskaraldiko edizioan belarriprest gisa eman nuen izena, helburuak betetzea errazago izango zela uste nuelako. Baina barrenean zerbaitek esaten zidan gaizki egin nuela. Euskalduna naiz, ikasketa guztiak euskaraz egin ditut eta prest nengoen konpromiso hori estutzeko. Beraz, aurtan ahobizi gisa eman dut izena, eta momentu batzuetan zaila egiten zaidan arren, orokorrean koadrilakoen artean nabaritu dugu egun hauetan euskararen erabilera handitu dugula. Etxean, anai-arrebak eta aita ere badakite euskaraz baina amak ez, eta batzuetan zaila egiten zait. Ez dut ama aparte sentiarazi nahi, eta askotan alde batera uzten dut. Dena den hitz asko ulertzen ditu eta bera aurrean ez dagoenean euskaraz aritzen saiatzen naiz. Ez dut perfektu bete, baina uste dut esfortzuak merezi izan duela eta hemendik aurrera gero eta gehiago saiatuko naizela, bai egunerokotasunean baita Euskaraldian ere".

Idoia Jusue Martiarena Muskizko bizilaguna da eta bigarren bezelarikoz belarriprest izan da:

"Euskara ikasten ari garenontzat oso ekimen positiboa da, ikasitakoa praktikatzeko laguntzen baitugu. Belarriprest gisa, euskara nonahi entzuteko prest nago. Pena da ez dela gizarte osoan oso zabalduta dagoen ekimena, eta hizkuntza-dinamikak eta ohiturak hartu ditugu, erdara nagusia da eta nabaritzen da. Euskaraldi honetan familiakoekin euskaraz egin dugu batzuetan, eta horrek kontent jarri nau, aurtan ez naiz euskaltegiara joaten eta erabiltzen dudanean laguntzen dit. Gainera aurtan Esan Erran irratian agertzea tokatu zait eta euskaraz egiteko aitzakia oso ona izan da. Nik urte osoan daramat nire belarriprest txapa, urte osoko ekimena dela iruditzen zait, ea hurrengoan aho bizi txapa eskatzen duan".

11 arigune

Osoz 11 tokitan eman dute izena arigune gisa Ultzama aldean.

Haien artean, eta ostatuak itxita egon arren, Benta Miguel jatetxea. Horrela azaldu digu Patxi Larraintzar arduradunak: "Babesa emateko eman genuen izena, euskararekiko konpromisoa adierazteko. Lanean bi gara eta biok dakigu euskaraz, beti euskaraz egiten saiatzen gara".



Idoia Jusue, Muskizko bizilaguna, belarriprest izan da bigarren urtez

Lantz	10
Odieta	14
Atetz	9
Anue	24
Ultzama *	134
Imotz	76
Basab	110
Guztira	377

**Ultzamako zerrendan badaude Anue, Lantz, Atetz eta Odieta bizilagunak ere*

Eskualdeko ariguneak:

Orokorrak: Iparmank

Rural Kutxa

Imotz: Imozko Udala

Basaburua: Basaburuko Udala

Apeztegi berriko denda

Aralar Musika Eskola

Oihanzabal ikastetxea

Ttikiena Haur Eskola

Ultzama: Aralar Musika Eskola

Benta Migel Jatetxea

Biolentzia matxistari aurre egiteko gida atera du Imozko berdintasun batzordeak

Azaroaren 25ean izan zen **indarkeria** matxistaren aurkako eguna. Horren harira, Biolentzia matxistari aurre egiteko gida atera dute Imotzen. Berdintasun Batzordeko kideek sortu dute liburuxka, eta Karma Produzioak enpresak **ekoitzi**. Guztira 34 orrialde ditu gidak, eta euskaraz eta gazteleraz dago idatzita.

Idoia Jusue batzordeko kideak Esan Erran irratan azaldu zuen sistema patriarkalaren zapalkuntza ezberdinei aurre egiteko erremintak ematea izan dutela helburu. Horregatik, indarkeria matxistaz gain, LGBTI pertsonendako **baliabideak** ere eskaini dituzte lanean.

Bederatzi atal desberdinetan banatu dute gida: kontzeptuak argitzeko azalpenak, biolentzia matxista

eta sinbolikoa identifikatzeko eta horri aurre egiteko tresnak, emakumeendako eta LGBTI pertsonendako erreferentzia eta baliabideak eta kultura feministako hainbat proposamen (liburu, film eta diskoak) jaso dituzte bertan.

Imozko etxe guztietara **helarazi** dute honezkero gida, baina beste edonork liburuxka eskuratzeko interesa badu Udaletxean eskuragarri izanen dela adierazi dute bultzatzaileek.

Hiztegia

Indarkeria: Violencia

Ekoitzi: Producir

Baliabide: Recurso

Helarazi: Hacer llegar



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Maite Mutuberriaren marrazkiak, Pirritx Porrotx eta Marimototsen azken lanean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez Hil Argi eta Hik Hasi elkarteekin elkarlanean egin dute azken lana: Amaren Intxaurrak. Bertan, heriotzaren lanari heldu diote: "Familia eredu anitzez, kultura **aniztasunaz**, **hezkidetzaz**, **bizikidetzaz**, inklusioaz, naturaz, gaixotasunaz, ... irri, kantu, dantza eta jolas, bizitzaz aritu gara ibilbide luzean sudur-gorriak, bizitzaren parte baitira horiek guztiak, egunero partekatzen ditugunak eta eragiten digutenak. Oraingoan, aldiz, bizitzaren parte den heriotzaz jardun asmo dugu. Arrazoia argia da, heriotza ere presente dago gure egunerokotasunean", azaldu digu Joxe Mari Agirretxek, Porrotxek, Egun Ero irratsaioan.

Proiektu berri honen helburua heriotzaren gaia haur eta gaztetxoekin, eta haiekin batera, familiekin ere lantzea da. Izan ere, Porrotxek esan zigun bezala, heriotza tabu izaten jarraitzen du: "Denak jaiotzen gara eta denak hiltzen gara. Bizitzarekin batera doa heriotza eta natural den hori modu naturalean sentitu, pentsatu eta barneratu behar genuke pertsona guztiok. Proiektu honen bidez heriotzaren errealitatearen aurrean pertsonon **ahalduntzea** dugu helburu, gai honi gu guztiok osatzen dugun komunitatetik erantzunez, familiarik, lagun artetik, eskolatik, auzotik, herritik, ...".

Marimototsen ama, Loreto, duela hiru urte hil zen eta

intxaurrondoa landatu zuten bere oroimenez. Gaur, lehen fruituak dastatuko dituzte eta intxaurrak jan ahala Loretoekin bizitako abenturak partekatuko dituzte. Dolua igarota, irria ateratzen zaie orain berarekin akordatzaren diren aldiro.

Julio Soto bertsolariaren hitzei, Maite Mutuberria eltzaburuarrak jarri dizkio irudiak. "Batuetan irudi oso narratiboak sartu ditut, umorea ere jarri nahi izan diet irudiei; beste batuetan irudi poetikoagoak, sentimenduak islatzen dituzten irudiak sartu ditut. Horretarako, hiru baliabide izan ditut: alde batetik teknika, akuarelaz egin baititut elementu asko eta nik uste xamurtasuna eta gertutasuna ematen diotela. Eta beste baliabide bat natura izan da. Oso presente dago liburuan, bizitzaren garai guztiak islatzen dituelako, baita heriotza ere".

Hiztegia

- **Aniztasuna:** diversidad
- **Hezkidetzaz:** coeducación/
criaren igualdad y en comunidad
- **Bizikidetzaz:** convivencia
- **Ahalduntzea:**
empoderamiento



▲ Amaren Intxaurrak, Katxiporretaren azken lanaren aurkezpena, Iruñean



Martxa jendetsua egin dute eskualdean Izan Bidea ekimenaren baitan

Sarek antolatuta, Euskal Herriko toki askotan mobilizazioak egin zituzten azaroaren 21ean euskal preso eta iheslarien etxeratzea eskatzeko. Gure eskualdean martxa egin zuten Jauntsarastik (Basaburua) Latasara (Imotz). Araitz-Larraungo eta Arakil-Irurtzungo herritarrekin batera antolatu zuten ekimena, eta hiru zutabe desberdinetan egin zuten ibilaldia.

Goizeko 10:30ean atera zen gure eskualdeko martxa Jauntsarastik: bertara batu ziren Basaburuko, Imozko eta Ultzamako 40 herritar, Latasarainoko 10,5 km-ko ibilbidea egiteko. 420km inguru egin zituzten, beraz, Izan Bidea ekimenak Euskal Herri mailan jarritako 3.127.326 (Euskal Herriak adina biztanle) kilometro egiteko erronkari beren aletxo jarritz.

12:00etan egin zuten bat hiru zutabeek Latasako frontoian. 125 bat lagun elkartu ziren han, eta ekitaldia egin zuten: mosaikoa osatu eta Mexikortxo taldearen laguntzaz Hertzainaken 564 abestia abestu zuten, eta bertsolariak eta nesken pilota partidak ere izan ziren. Aipatzekoa da hiru zutabeetako parte-hartzaile guztien

artean 1.120 kilometro egin zituztela. Ez da zenbaki makala! Hurrengo datei begira, bertan behera gelditu da urtarrileko Bilboko manifestazioa, baina horren ordez tokian tokiko ekimenak egingen dira Euskal Herri osoan. Gure eskualdean ere egonen da deialdirik, adi beraz.



▲ Izan Bidea, ibiltarien sarea



125 bat lagun elkartu ziren Latasako frontoian ▲



Oskozko Eskoletxea errentan atera du Kontzejuak

Lehenagotik alokairuan zuen Eskoletxea Kontzejuak, baina eraikinaren egoera nahiko kaxkarra zela ikusita, Batzarrean konpondu eta berritzea erabaki zuten. Leitzako enpresa batek egin zuen etxebizitzako obra, eta Joseba Gartzaron Kontzejuko lehendakariak

azaldu digu dei ugari jaso zituztela bertan bizitzen jartzeko eskaria eginez. Azkenean, familia bat jarri da bertan bizitzen, ume batekin. "Gu pozik eta haiek ere horrelaxe!", zioen lehendakariak.

Herriko lursail bat naturalki 'oihantzen' utzi dute

Mendiaren kudeaketari lotuta diagnostiko bat osatu zuen Oskozko (Imotz) Kontzejuak duela zenbait legegintzaldi, eta diagnostiko hori eskuetan zutela plan bat diseinatu zuten hurrengo urteetarako. "Basozainekin elkartu ginen, gure artean hainbat bilera egin, eta ikusten genuen mendia badela medio bat dirua atera daitekeena baina aldi berean, garrantzitsua zen guretzat mendi dibertso bat edukitzea fauna eta flora aldetik", dio Kontzejuko lehendakariak. Horrela, inguruko mendietan ia dena pagoa zela ikusita, komunaleko soro batean landaredia bere kasa garatzen uztea erabaki zuten. "Sasi eta ote dezente zegoen lursail horretan, eta bilakaera naturala izan dezan uztea erabaki genuen". Aldi berean, Nafarroako Gobernutik proposamen bat

ere jaso zuten, bertan gaztainondoekin esperimendu bat egiteko: "Ehundik gora gaztainondo barietate ezberdin sartu ziren lursailean, hauen gaixotasun ezberdinekin aztertu eta probak egiteko". Lursail hori animalientzako toki eroso bat izanen dela



▲ Oskotz



Begoña Okiñena Etxeberria

ABOGADA



Landa legedian aditua

- Erretiro edo jubilazio eskaerak
- Lanerako ezintasunak
- Herentzien tramitazioak
- Zergen betetzeak
- Erregistroak
- Errekurtsoak

948 503 155

b.o.etxeberria@gmail.com



FONDO EUROPEO AGRÍCOLA DE DESARROLLO RURAL:
EUROPA INVIERTA EN LAS ZONAS RURALES

Nafarroako Gobernua
Landa Garapenerako, Ingurumeneko
eta Toki Administrazioako Departamentua

Gobierno de Navarra
Departamento de Desarrollo Rural,
Medio Ambiente y Administración Local



Musika estudioa eta tailerra jarri du Larraintzarren Iñaki Larraiotzek

Grabaketa estudioaz gain, musika instrumentuak eta aparatu elektronikoak konpontzeko tailerra jarri du. Horretarako, Larraintzarren duen garajeaz obra egin eta horretara egokitu du. Kulturarako garai onak ez direla onartzen du, baina diskoak hor grabatu ahal izatea da asmoa. Aldi berean, ingeniaria, musika instrumentuak eta soinu aparatu elektronikoak konpontzeko tailerra ere jarri du martxan Larraiotzek. 2019an eszedentzia hartu zuen lanean, proiektu berria martxan jartzeko, eta orduan hasi zen orain amaitzen ari den obrarekin.

Iñaki Larraiotz bera ere musikaria da. 2018an Larra Bideak-en lehenengo diskoa grabatu eta 2019an kaleratu zuen. Hori izan da bere azken proiektua baina aurretik Ultzaman sortutako La Betty Traban taldean aritu zen.



Iñaki Larraiotz Larraintzarren jarri duen estudioan ▲

OHI DENA EDATEA GEHIEGI IZAN DAITEKE

OHI DENA OSPATZEA BAITA ERE

***EGIN DITZAGUN
BESTELAKO OSPAKIZUNAK***

GARAI ZAIL HONETAN



ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITZAZU



Eskulangileen Azoka eta Zozketa Mundiala, bertan behera

Pandemia egoera dela eta Eskulangileen Eguneko azoka eta Pulunpeko Zozketa Mundiala bertan behera uztea erabaki du Pulunpe, Esan Erran eta amezti.eus bultzatzen dituen Ametza Kultur Elkartek.

Eskulangileen eguna pasa den urtean ospatu zen lehenengoz, abenduaren 1ean, eskualdeko artisau eta ekoizleekin batera antolatutako azoka baten bidez. Aurten ere errepikatzeko asmoa zegoen, baina egoera ikusita bertan behera uztea erabaki du Ametza Elkartek.

Zozketa Mundiala urtarrilean egitekoa zen, urtero bezala. Baina ostatuak itxita eta taldeetan ezin elkartu, boletoa saltzea oso zaila izango zen. Horregatik, urte bat gehiago esperatu beharko dugu hura egiteko.

Duela 8 urte hasi zen Pulunpeko Zozketa Mundiala, Nafarroako Gobernuak euskal aldiakari, telebista eta irratien diru laguntzak kendu zituenean. Geroztik,

Euskal Herriko hainbat lekuetara zabaltzen da ostatuak eta herritarren laguntzagatik.

Pasa den edizioan 10 txerri gizen, 10 axuri eder, 18 otordu bikoitz, 24 gazta, 30 sakitxo... eta beste hainbat eta hainbat sari banatu genituen ilbeltzaren 12an 107.9an zuzenean egindako zozketan. Guztira, 134 sari.



▲ Angel Beuntza zizelkariak omenaldia jaso zuen pasa den urtean. Argazkian Ametzako Benito Alberroengandik omenaldia jasotzen ari da.

ALKOHOLA KONTSUMITZEAN COVID-19AREN PREBENTZIOAN LASAITZEN GARA



ALKOHOLAK NEURRI GUTXIAGO HARTZEA ERAGIN DAKIGUKE

-  **200 ml.** SEGURTASUN-DISTANTZIA GAIZKI NEURTZEA
-  **400 ml.** ARRISKU-SENTSAZIOA MURRIZTEA
-  **600 ml.** EGITEN DENA ETA SENTITZEN DENA ALTERATZEA



IMMUNITATE-SISTEMA AHULTZEN DU. ALKOHOLAK EZ DU COVID-19AREN AURREAN BABESTEN



HARREMANAK HONDATU ETA EMOZIOEN KONTROLA GALTZEA ERAGIN DEZAKE



FAMILIAN KONTSUMITZEN DENEAN ADINGABEEN GARAPENARI ERAGITEN DIO





iritzia



Nora Arbelbide *Lete*
Berria

«Iparraldekoa?»

2020ko abenduak 4

Egia erran, hasieratik ez dut ulertu, eta segitzen dut traba batekin Durangoko Azoka iristen denean. Badu dozena bat urte Ipar Euskal Herriko ekoizleek beren txokoa dutela Durangoko Azokan. Aurtengoa ez da arras txokoa, baina Ipar Euskal Herriak zer ekoizpen berri daukan urte bukaera honetan azaltzen duen bideotxoa badu. Ikusgarritasunean irabaztea litzateke argumentua. Agian egiturentzat da garrantzitsua? Euskal Kultur Erakundearentzat? Bere eremuko artistak, ekoizleak, laguntzeko? Gerediagarentzat, Ipar Euskal Herria ez duela ahanzten erakusteko?

Bizkitartean ni saiatzen naiz irudikatzen delako txoko horretara datorren pertsona hori. Zergatik garrantzitsua zaio jakitea Iparraldean ekoiztea dela? Zer eskaintzen dio lokalizazio horrek? Esentzialismoan erortzeko arriskua sentitzen dut hor, pertsonalki. Eta baita euskararen zatikatzearen joera batean. Ipar Euskal Herriatik ere, behin baino gehiagotan entzun izan dut iparraldeko euskararen idatzi liburuen irakurtzeko nahi hori, eta azkenaldi honetan baita zuberotarrezko egokitzapenak ere biderkatzen doaz —Nola Erran hiztegian barne—.

Batzuetan gertatu zaizu galdetzea: «Euskalduna?». Bada, niri «Iparraldekoa?» da egiten zaidan oharra. Erranen didazu aitzinamendu bat dela, lehen agian «Frantsesa?» ziotela —gertatzen da oraindik—, nahiz eta euskaraz aritu.

Euskalduna izatea ongi zait niri, zinez. Sinpleki. Ipar hori kentzea ahal den bakoitzean. Komunitate berean parte hartzea. Bakar batean. Hizkuntzak permititzen duen mugarik gabeko eremu horretan. Badakizu, Joseba Sarrionandia idazleak aste honetan aipatu duenaren hari beretik. Euskaraz idatziz «komunitate» baten parte ikusten duela bere burua esplikatu du. «Pribilegiatua sentitzen naiz komunitate baten parte izateagatik». Edertasuna bilatzeko modu bat baino gehiago, literatura «bizitza komunitarioan» parte hartzeko formatzat dauka Sarrionandiak.

Pornografiak eta sexu-hezkuntzaz hausnartzen

Ultzamaldekoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, pornografiaren eta sexu-hezkuntzaren inguruko hitzaldia eman zuen Pili Miqueo eskualdekoko bizilagunak azaroaren 18an, Zoom online plataforma bidez. Gurasoei zuzendutako saioa izan zen, eta nerabe eta gaztetxoei laguntza eskaintzeko edo akonpainamendua egiteko tresnak landu zituzten bertan.

“Errealagoa den eta aniztasunean eta parekidetasunean oinarritzen den sexualitate eredu baterantz nola trantsitatu azaltzea eta lantzea” zen hitzaldiaren helburuetako bat, Aiora Epelde aizaroztarrak Esan Erran irradian azaldu zigunez. Izan ere, gaur egun nagusi den eta gehien kontsumitzen den pornografia eredu hegemonikoa matxista eta klasista da, eta botere-harremanetan oinarritzen da, gizonezkoa subjektu aktibo bezala islatuta eta emakumea, berriz, objektu gisa. Gazteek (eta ez hain gazteek) sexualitateari buruz duten eredu nagusia hori izateak baditu bere arriskuak.

Datuek diote 17 urtetik beherako gazteen %73ak onartzen duela pornoa kontsumitzen duela, eta horietatik %61a gizonezkoak dira. Arazo handiena porno eredu horretan fikzioa eta errealtatea nahastea izan daitekeela zioen Epeldek, hain zuzen gazteek askotan ez baitute bertan ikusten dutena fikzioa dela ulertzeko nahikoa tresnarik. Tresna horiek pixkanaka eskuratzen joateko saioa izan zen Pili Miqueok zuzendutakoa. Hori bai, gurasoen lanketa hori asaitasunetik egitea aldarrikatu zuen Miqueok, pornografian erreproduzitzen dien diskriminazio eta botere-harremanak gainontzeko esparruetan ere ematen baitira: zineman, telebistako publizitatean... “Garrantzitsua da gaiok modu kritikotik lantzeko ardura edo aukera hartzea, baina hori bezain garrantzitsua da lanketa hori lasaitasunez egitea”.



Nuria Fragoren ilustrazioa (Pikaramagazine)



XII. Euskal Herriko Mus Txapelketako finala, 2021eko martxoan jokatu da Zigoitian

2020ko martxoaren 14ean egitekoa zen XII. Euskal Herriko Mus Txapelketaren final nazionala Zigoitian baina pandemiaren eraginez bertan behera utzi behar izan zuten.

Hasiera batean, maiatzera atzeratzea nahikoa izango zelakoan bazeuden ere, berriz ere atzeratu behar izan zuten, baina azkenean badago data berri bat. 2021eko martxoan izanen da finala: "garbi dago momentuan epe motzean ez dagoela baldintzarik zazpi herrialdeetako 128 bikote segurtasunez biltzeko eta musean aritzeko. Horregatik urtebetez finala atzeratzea erabaki dugu. Sailkaturiko bikoteen zerrenda badugu, webgunean dugu plazaraturik eta bakoitzarekin harremanetan ere jarri gara. Beraz aurten finalera sailkatu zirenek datorren urtean jokatu dute finala Zigoitian. Uste dugu momentu honetan Covid-19 izenaz ezaguturiko gaitzari aurre egiteak lehentasuna duela. Horregatik osasuna eta pertsonak erdigunean jarri aurten, nazio mailan herriz herri egiten den mus txapelketa ez antolatzea erabaki dugu.", horrela adierazi du Euskal Herriko Mus Federazioak bere webgunean.

Baina 2020an zerbait egingo al da? Bai, abendu inguruan Euskal Herriko zazpi herrialdeetako kultur eta kirol eremuko herritarrek osaturiko bikote mistoekin, musaldi berezia antolatzeko asmoa du Euskal Herriko Mus Federazioak. Euskara oinarri hartuaz gizarteko edozein eremutan ezagun diren herritarrek musean jarriko dituzte. Bikote irabazleak 2.000 euroko saria jasoko du, eta sari hau Ipar Euskal Herriko Ikastola elkarteko Seaskarentzako izango da dohaintzan.



▲ EHko Mus Txapelketako kanporaketak, Imozko Biltegian

Atzeratu da pilota goxoko txapelketako finala



▲ Pilota goxoa

Oztopoak oztopo, aurrera jarraitzen du txapelketak. Dena den, finala ez da abenduan izanen aurreikusita bezala, aurrerago burutuko da. Covid-19aren ondorioz izanen da hori, asteburuko partidak berriz antolatu behar izaten du antolakuntzak, Imozko eta Basaburuko batzordeak, jokalariren bat gaixo dagoela, konfinatuta dagoela, edo, batez ere, mugikortasun neurrien mugarengatik, kanpotik etorri beharrekoak ezin dutelako etorri.

Ligaxka guzian 102 partida ziren, hau da, astean 9 partida jokatu behar ziren. Eta horren ordez 7-8 partida jokatu izan ditugu. Gero, Errioxatik eta Gipuzkoatik etorri behar zutenak, ezin etorria izan dute. Beraz, partida guzi horiek atzeratu behar izan ditugu. Gauza bera gertatzen da neskekin, ezin dira etorri.", azaldu digu Mikel Jaunarena 'Zepelo', antolakuntzako Toki Alai elkarteko kideak.

Txapelketa berezia izaten ari da aurtengoa, triste xamarra esan dezakegu, izan ere, oztopo guzti horietaz gain, ikuslerik ezin da hurbildu Gartzaron eta Latasako frontoietara.



GR 322

Zubiri eta Aritzu mendiz mendi lotuz

Mendizaletasuna puri-purian dagoen garaiotan, gure eskualdetik pasatzen den GR mendi ibilbide berri baten markaketa eta seinalizazio lanak egiten aritu dira azken hilabeteotan hainbat herritar. Zubiri (Esteribar) eta Aritzu (Anue) lotzen ditu 70 kilometro inguruko ibilbide zirkularrak, bidean Lantz ere pasattuz, eta guztira 4.000 metroko desnibel metatua du.

Irailean hasi ziren hainbat herritar eta mendizale gure eskualdearen zati bat zeharkatzen duen GR ibilbidearen markaketa lanak egiten. Aritzuko (Anue) Aitor Iraizotz mendi lasterkaria ere aritu da lantaldean: "Lanak bukatzeaz daude, markaketa eta pintaketa guztiak eginak daude honezkero. Orain, seinaleak eta panelak jartzea falta da soilik", azaldu zuen aritzuarrak Esan Erran irratiari.

• Nafarroa Xtrem lasterketa oinarrian

Nafarroa Xtrem mendi lasterketan du oinarria ireki duten ibilbideak. 2016an egin zuten lehen edizioa, eta geroztik urtero ehunka lasterkaririk egiten zuten ibilbidea.

"Jendeak ibilbidea egiteko eskatzen zuen, eskari hori hasieratik izan dugu", zioen Iraizotzek. Izan ere, urteko garai batzuetan ibilbidea belar eta sasiek tapatu egiten zuten, eta ez zen erraza bidea jarraitzea. Jendearen eskariari erantzuna emateko asmoz egin dute orain GR-322 bidearen markaketa ofiziala.

Baina, zer dira zehazki GR ibilbide horiek? Horrela azaldu zuen Aritzuko lasterkariak: "Mendiko federazioak dituen distantzia luzeko ibilbideak dira GRak, 50 kilometro baino gehiago dituztenak". Federazioak onartutako bide horiek homologazio bat dute, eta baldintza minimo batzuk bete beharra dituzte seinalizazioari eta segurtasunari begira. "Garantia

“ 50 kilometro baino gehiagoko mendi ibilbideak izaten dira GRak ”

bat da, nolabait: edozein tokitara zoazenean, badakizu GRak ziurrak direla, seinalitika eta ikur konkretu batzuk jarraitu behar direla". Mendian buelta bat eman nahi dutenentzat ibilbidea identifikatzea eta jarraitzea erraztea dute helburu, azken batean.

Gorritz eta txuriz markatutako seinalizazioak izaten dituzte, mendizaleen artean ezagunak direnak.



GR 322 ibilbidearen seinalizazio eta panelak jarri dituzte ▲



• Tontor asko eta 5 bailara ezberdin zeharkatuz

Lantz eta Anue bailaraz gain, beste hiru ere pasatzen ditu GR ibilbide berriak: Esteribar, Erroibar eta Baztan. Eta tarte horretan, asko dira pasatzen dituzten mendi-lepo eta tontorrak: Zotalar (1.262m), Adi mendia (1.457m), Oialegiko lepoa (1048m), Saioa mendia (1.418m), Suriaingo tontorra (1.410m), Azegiko lepoa (1.044m), Oianberokiko tontorra (1.232m) eta Barratxuetako kaskoa (1.148m), besteak beste.

Ibilbidearen bultzatzaileek hiru etapa ezberdinetan banatu dute bidea: "Norberak nahi duen zentzuan eta erritmoan egin dezake bidea, baina guk Nafarroa Xtrem lasterketaren zentzua hartu dugu kontuan, erlojuaren kontrakoa, eta hiru etapatan egitea proposatzen dugu", zioen Iraizotzek.

“Ibilbide berria ofizialki markatu eta irekitzeak mendizale gehiago erakarriko duela uste dute”



Ibilbidean seinalak jartzen ▲

Hauek dira ibilbideko hiru etapak:

1. etapa: Zubiritik Urkiagako lepora, Adi eta Zotalar mendiak pasaz, besteak beste (20km inguru)



2. etapa: Urkiagatik Lantza, Saioa eta Xuriain mendiak pasaz, besteak beste (22km inguru)



3. etapa: Lantzik Aritzura, handik Iragira eta Zubirira buelta. Apordoka eta Baratzueta mendiak pasaz, besteak beste (27km inguru)



Zailtasun aldetik etapak nahiko orekatuak direla adierazi du lasterkariak, guztietan antzeko distantziak eta desnibelak kalkulatu: 20-25 kilometro artean dituzte etapa horiek. Dena dela, ibilbidea zehazterakoan bestelakoak ere hartu behar izan dituzte kontuan, esaterako, etapa amaierak sarbide erraza izatea eta inguruan ostatu edo aterpetxeak egotea, ibilbidea egiten ari direnek gaua bertan pasatu ahal izateko. Urkiagan, Lantzen eta Zubirin bukatzen dira etapak, eta, beraz, hiruetan zerbitzu horiek egon badaudela bermatu dute.

“Lanzko herrigunea ibilbide ofizialak ez du zeharkatzen, baina herriraino sarrera eta irteera bat markatu dugu, etapa hasiera eta bukaera izango delako. Bariante horri GR322.1 deitu diogu eta markaturiko 6 kilometroekin ibilbide zirkular bat egiteko aukera ere egonen da”, azaldu digu Aritzuko lasterkariak.

Koronabirusaren garaiotan jendea inoiz baino gehiago dabil mendian, eta horrelako ibilbide berri bat ofizialki markatu eta irekitzeak mendizale gehiago erakarriko dituela uste dute egitasmoaren bultzatzaileek. Eskualdeko herritarrentzat ere ez da ingurua eta ondoko bailarak ezagutzeko modu txarra. Ez galtzeko marra gorritz eta txuriz markatutako seinalazioa jarraitu besterik ez da egin behar!



▲ Nafarroa Xtrem lasterketako ibilbidearen profila







Imozko mintzakide taldea

Euskaraz egiteko arnagune berria eskualdean

Euskara ikasten ari direnendako eta praktikatu nahi dutenendako talde informalak dira mintzakide taldeak. Gure eskualdean bazeuden lehendik bi talde: Iraizozko Ostatuan elkartzen dena batetik, eta Jauntsarasko Apeztegiaberrikoa bestetik. Ikasturte berriarekin, berriz, Imotzen talde berria osatu dute: Latasako Biltegian astero biltzea da haien asmoa.

Jone Gabari eskualdeko mintzakide taldeen dinamizatzailerak Esan Erran irratan azaldu zigunez, profil ezberdinetako partaideek osatzen dituzte taldeak: euskara maila hobetu nahi duten herritarrak, hizkuntza gehiago praktikatu nahi dutenak nahiz esperientzia edo lagun berrien bila dabiltzan euskaldun zaharrak. Guztiek dute lekua mintzakide taldeetan. Hori bai, parte hartzeko nahitaezkoa da oinarrizko euskara maila behintzat edukitzea.

• Imozko talde propioa, azkenean

Irantz Mozo Imotzen sortu berri duten taldeko kideetako bat da. Duela zenbait urtetik saiakerak egin izan dituztela azaldu zigun irratan, baina taldea osatzeko gutxienez lau pertsona behar direla eta orain arte ez zuten lortu. "Basaburuko mintzakide taldera joaten ziren Imoztik batzuk, baina aurtengoan 6-7 pertsona biltzea lortu dugu eta badirudi aurrera doala", zioen.

“ Imozko talde berrirako 6-7 pertsona biltzea lortu dute ”

Mintzakide taldean gehiago kostatzen zaienei laguntzeko bidelagunak egoten dira talde guztietan, eta hiruzpalau lagun lotu dituzte honezkero Imotzen. Ideia Latasako Biltegian elkartzea da, astero, baina koronabirusa dela eta ostatuak itxita dauden honetan, oraindik ez dute biltzerik izan. Partaideen artean adosten ari dira nola antolatu daitezkeen egoera honetan.

"Lagun talde baten antzeko zerbait da mintzakide taldea, bailara bereko jendez osatua. Klasera formalki joan beharrean modu informalago batean, kafe edo garagardo baten bueltan, errazagoa da askotan hitz egitea", zioen Mozok.

• Basaburuan eta Ultzaman ere martxan



Pandemia egoerak ez ditu atzera bota eskualdean lehendik martxan zeuden taldeak. Topalekuak ostatuak izanik, moldatzen ari dira, eta online mintzapraktikak geroz eta ohikoak direla azaldu zigun Gabarik. "Online mintzakide taldeetan ere oso harreman politak sortzen dira", kontatu zigun.

Eskualdeko edo online mintzakide talderen batean parte hartu nahi duten herritarrek praktikatu.eus webgunean edo 607 62 21 02 telefonora deituz eskura dezakete informazioa.



Eskualdeko mitzakideen proiektuetan parte hartzen duten hainbat kide



A25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK BADIRAU ORAINDIK,
IKUSTEN EZ BADUZU ERE... EDO IKUSI NAHI EZ BADUZU ERE

IREKI BEGIAK

Imozko mintzakide taldea

BERDINTASUNEAN
AURRERA EGITEAK
INDARKERIA EZABATZEN DU

generoindarkeriagehiagoez.nafarroa.eus



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

25. Aniversario - Urteurrena
1995 - 2020

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua





Berueteko apeza

Don Migel Oderitz Goldaratzena

Don Migel. Askotan bezala, egun hartan ere han zen Don Migel, tabernan, gainerako gizon-mutilen antzera. Beste bat bezala.

Eta egun hartan, beste askotan bezala, sukaldera joan zen gizon guzien gisara. Sutondoan besteekin batera, hizketan aldrebeskeria guziez, ji-ji, ja-ja.

Eta maiz gertatzen zen bezala apezarekin, egun hartan ere, sesioa sortu omen zen. Haserrea! Ez, ez zen harritzekoa, ostatzalea izateaz gain, haserrekorra eta ixkanbila jartzale aparta baitzen. Haserrea sortu eta haserrea sutu!

Eta su ondoan, zartaria olioan edo koipez betexea eta hara, gure apezak hura hartu eta ahuspez, zapeltako jarri zion sutondoko gizon bati.

Hau izan zen azkenekoa Berueten egin zuena. Hori uste dugu behintzat, bere akerkeria guzien lore printza izan zela. Behin-betiko alde egin beharra tokatu zitzaion. 1880a zen.

NOR ZEN GURE APEZA?

Don Migel, Madotzen 1834an sortutakoa genuen, Migel Oderitz Goldaratzena, Mariano eta Micaelaren semea, lehena Oderizkoa eta bigarrena Madozkoa. Bai, Madotzen jaio, baina gehiago bizitu zen Oderitzen. Maistar etxeko semea eta hala ere apez estudioak egin zituen. Ez zen buru txarrekoa Don Migel, ez; buru arinekoa, ordea, bai.

Apeztu eta lehen urteak non egin zituen ez dakigu garbi: Orbara, Baraibar eta Zugarramudin ibili zela bai, baina datak ez dakizkigu, denetan ere oso-oso denbora laburrez.

Nolanahi dela, 1865. urtean Berueten sartu zen apez titular eta urte andana bat egiten zuen bertan, 1880. urtea artio, hain zuzen.

NONDIK ATERA OTE ZUTEN BERUETARREK APEZ FAMATU HAU?

Garai hartan herri gehienetan herriko bezinoek (auzoek) hautatzen zuten apeza. Bai, bai, uste ez baduzu

ere horrela izaten zen. Herriak hautatu eta obispoak onespene eman. Hori dut ikusi hemengo herri guzietan (1) Eta nondik atera zuten beruetarrek apez hau? Ai,ai, ai, kontua ez zen Berueten horrela. Berueteko Patronatoa (Beste egiteko batzuen artean, apezak hautatzeko deretxoa zuena) ez zen herriarena, Gongorako markesarena baizik. Eta honi zer inporta zitzaion on edo txar, beste interes batzuekin hautatuko zuen, eta Don Migel hautatu. Apez bihurri honek bazuen nonbait atautxiren bat eta, hala, alderdi honetako herririk handieneko parrokiarako igorri Markesak!

OSKOTZA APEZ INTERINO

Pentsa Berueten nolako lanak eman zituen! Herriko gizonek ezin burutu odoiztarrarekin. Bai, baina pertzak urez gainezka egiten duenean bezala alde guzietatik, Berueten ere, irri eta algarak bukatu ziren, amorrazioa barratu zen. Eta herriak esku hartu, Obispadura joan eta beste norabait aldentzea erabaki zuen Obispoak. 1880. urtea zen. Ez dakigu seguru nora joan zen. Ondoren bai, badakigu 1883an alkoholismoa zela eta prozesatu zutela, eta nonbait sartu behar eta Artikutzara (Goizuetako lurretan dago hori) bidali zuten, zakurren ipurdira, baina auzo ttiki-ttiki eta urrun horretarako ere on ez. Ez omen zen gai!

1885. urtean Ilurdotzen zen, interino. Baina, nonbait, bere herritik hurbilago nahi izaten zuen eta oso-oso gutxi iraun zuen bertan.

Garai hartan tokatu zen Oskotzen kolera epidemia hilkor hura, eta bost ikusi ondoren eta pandemia pasa eta egun batzuetara, Don Jose Ripa apez gizajoa, oraindik gizon sasoikoa, hil egin zen bat-



Berueteko ostalua. Sartu eta ezkerrera zuen sukaldia, erdi-erdian sua eta bueltan-bueltan jartzen zen jendea. Eskuinera berriz, ardangela. Biak parez-pare. Ostatu hau nonbait maite zuen Don Migelek!



batean. Gauzak horrela, Don Migeli ederki etorri zitzaion kontu hau eta Oskotz eskatu zuen. Eta bai eman ere. Eta hemen egin zituen hurrengo bi urteak: 1886-1888, hori bai, interino, behin-behineko, jakina, bera Berueteko Parrokia zen eta aurrera ere izaten segitu nahi zuen. Eta ez zuen uzteko asmo errestitik ere; berak berean segituko zuen, Berueteko Parroko! Eta Obispoak ere ez zion kentzen ahaliko kargua. Eta Oskotzen ere, Berueten bezala, bide beretik segitu zuen: ostatura joanez eta haserreak piztuz noiznahi. Orduko hartan, herriko mutilekin omen zuen zerbaitez gorabeheraren bat. Eta, hala, gau batez mutilekin iskanbila gogorra izan eta buru makur atera omen zen ostatutik.

Hurrengo igandean, meza ematez bukatu eta ohitura zen bezala, sepulturetara joan omen zen erresponstuak ateratzera, bitartean mutiko-mutil eta gizon guziak eliza uzten zuten bitartean. Dirudienez, mutilak elizatarian solasean eta apezak erresponstuak ateratzen zituen lekutik, ate artetik, mutilak ikusten eta, hala, oihuka hasi omen zen:

-Datozila, datozila honia, mutil harroputz zikiñ hoiek, datozila, datozila...

Eta keinuka eta desafioka apeza. Isopoa eskutan zuela ere entzun izan dugu, baina xehetasun guziak ez jakin guk.

DIRU JOKOA

Don Migel ez zen Apezetxean egoteko gizona. Ibilkaria oso, gelderik egon ezina! Behin, Oskotzen zenean, Irurtzunen pilota partida inportantea eta jendea Irurtzuna. Baita apeza ere. Dirua jokatu nahi, baina narbarmendu ere gehiegi nabarmendu nahi ez eta, Etxalekutik joan zirenei, **-Zapatiñeneko** nagusia eta beste zenbait ziren bertan-, esan omen zien dirua jokatu nahi zuela eta laguntzeko. Beste aldean jarri omen zen Etxalekuko aurrez

aurre, eta partidakoan, keinuka hauei noiz eta nola hartu trabesak esaten. Artipizioa! Apezak opatzen zirrikituren bat berea egiteko!

OBISPOAK ERE EZIN BURUTU DON MIGELEKIN

Ez, obispoak ere ez zuen burutzen ahal gure Don Migelekin. Herri guzietako apezak, urtero, banan-banan Obispoarengana joan behar izaten zuten beren lanen berri ematera, baina Don Migelek ez zuen deus jakin nahi horrelako gauzekin. Kontuak ematera? Bera ez zegoen horretarako. Eta joaten ez, eta joaten ez. Bere lagun bidez ere igorri zion abisua, arren eta arren, azaltzeko Obispadura, Gotzaia zai zeukala, baina Don Migelek kasurik ere ez.

Azkenean, haserre eta etsia harturik, Elizbarrutiko Buletinean atera zuen Don Migelendako eta apez guziendako abisua:

Halako epea bete baino lehen agertzeko Obispaduan legeak agintzen ziona betetzeko, ez dakit zer zigor izanen zuela eta....

Eta jakinik Buletina ez zuela irakurriko, hurbileko apezak jarri zituen Don Migel abisatzeko arduradun: Don Migel ikusiko duenak, esan bezaio...

APEZ BIHURRI HONENTZAT TOKI APROPOSIK EZ.

Parrokia bat eramateko gizon desegokia. Erabat aldrebesa. Eta hara zer pentsatu zuten: konbentu bateko kapilau eta hurbileko herrietako ordezkari lanak-eta egiteko, Doneztebera igortzea, ea toki ezezagunean eta lan arina jarritz errestoan sartzen ote zuten.

Erdietsi ote zuten? Ezta pentsatu ere, euskal esaera hori ez ote zuten ezagutzen? Zera dioena: **Ahuntza beti maldan alde**. Eta Don Migelek betiko bidetik segituko zuen, hil artio. Eta Berueteko apez famatu honek, 1908ko azaroaren 21ean atsaldeko 2:15ean eman zuen azken hatsa, 75 urtetan.

OHARRA:

Harrigarria da nola gizon honen balentriak atzendu diren, harrigarria denez! Oihartzun ahulen bat entzuna nuen eta galdezka hasi eta bakarren baten oroimenean aurkitu ditut ziprirtin pixar hauek. Apezaren nortasuna atzemateko nahikoa.

Gehienik Don Emilio Linzoain Muskizko apezak lagundu zidan. Gizon txukuna beruetarra ez bezala. Bai alafede!

Gero Etxalekuko **Zapatiñeneko** Juaniko Erbitik kontatu dit jokoaren pasadizoa.

Eta beste datuen bila hor ibili naiz Artzapezpikuko Artxibategian eta Nafarroako Errege Artxibo nagusian. Eta Basaburuko udalean.

Laguntza eman didaten guziei nire esker ona!



Txurdan

(1) Beruete, Igoa, Auza eta Goldaratzen behintzat -gainerako herrietan ez bezala- ikusi ahal izan dugu jauntxo-kapareen esku zegoela apezaren izendatzea.

Gauza gehiago jakin nahi duenak, Don Migel eta bere familiaz, ikus beza amezti.eus

- **Hiztegia**
- **Hautatu:** Aukeratu
- **Onespena:** Aceptación
- **Zakurren ipurdira:** Oso urrutira
- **Bost ikusi:** Hamaika ikusi
- **Ibilkaria:** Andarin
- **Ezin burutu:** No poder hacer carrera
- **Arren:** Mesedez. Arren eta arren. Mesedez, indartua
- **Gotzaia:** Apezpikua=obispo
- **Elizbarrutia:** Diocesis
- **Erdietsi:** Lortu
- **Oihartzuna:** Eco
- **Atzeman:** Pillar
- **Oharra:** Etzanean jarri ditudan hitzak hemen ere ibiltzen dira edo ziren (zaharrek)



Ogi zaharra birziklatuz egindako garagardo artisaua

Ultzamako Baserri Eskolaren ardatzetako bat izan da bere hastapenetatik jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren alde egitea. Bide horretan, Slow Food filosofiaren baitan kokatzen da abiatu duten proiektu berria: Iruñeko Morlaco eta Mendabiako Kondaira garagardogileekin eta Iruñeko L'Atelier okindegiarekin elkarlanean ogi zaharreakin egindako Km-0 garagardo artisaua sortu dute: 'Ogi Koskorra' izena jarri diote garagardo berezi honi.

• Ogi likidoa: Erresuma Batutik Nafarroara

Europako herrialde askotan ezaguna da ogiarekin egindako garagardoa. Izan ere, Erdi Aroan ohikoa omen zen monjeek berrogeialdian zeudenean ogi solidoa ordezkatzeko 'ogi likidoa' deiturikoa egitea. Garagardoa ogi fermentatuarekin egiten da, uretan beste zenbait osagaiekin egosi eta gero fermentatzen utzita. Fermentatze prozesu horretatik egiten dute ondoren garagardo artisaua. "Prozesua erabat zirkularra da, ogi soberakinak aprobetxatzen dira eta gainera ez da hondakinik sortzen: garagardoaren hondarreak gelditzen den 'bagaza' bota egiten da normalean, baina kasu honetan animaliei ematen diegu jan dezaten", azaldu zuen Beatriz Otxotorena Baserri Eskolako kideak Esan Erran irratian.

Erresuma Batura egin zuten bidaia batean sortu zitzairen Baserri Eskolako kideei ogiarekin

garagardoa egiten saiatzeko gogoia. Han ogi koxkortu soberakinak garagardoa egiteko erabiltzen zituztela ikusi zuten, eta garagardo hura erosten saiatu ziren Erresuma Batutik hona ekartzeko. "Ez genuen garagardo hura hona ekartzeko modurik izan, Slow Food eta Km-0 filosofiarekin ekoizten baitzuten eta 100 kilometro baino urrunagora ezin zen eraman", zioen Otxotorenak. Horrela, hemen ogi asko eta kalitate onekoa ekoizten dela jakinda, Nafarroako garagardogileekin eta okindegi batekin jarri ziren harremanetan, proiektua martxan jartzeko helburuarekin.

• Garagardoa salgai ultzamako Baserri Eskolan

Mendabiako Kondairakoek egin dute 'Ogi Koskorra' garagardoaren formula, eta elaborazioa berriz, Morlaco garagardotegikoek. Ama orearekin ogia egiten duen L'Atelier okindegiak jarri du ogia. Bi garagardo mota ezberdin sortu dituzte: Amber lager eta lager bock motakoak. Zaporean, bikainak biak ere. Garagardo berezi hauek eskuratu nahi dituztenek Ultzamako Baserri Eskolara jo beharko dute, zuzenean edo haien webgunean eros ditzakete.



Ogi soberakinak erabiliz egiten da garagardoa, eta prozesua erabat zirkularra da

Bi garagardo mota egin dituzte ogiarekin



Bakailaoa saltsa berdean

Sekretua kazolaren mugimenduan dago

Berueteko (Basaburua) Edurne Aranoren etxean izan gara azkeneko sukaldaritzat atalean, eta bakailaoa saltsa berdean edo 'pil-pilean' prestatzen ikasi dugu berarekin. Errezeta goxoa, eta prestatzeko zailtasun handirik gabea. Ikasi nahi?

OSAGIAK

Bakailaoa

Oliba olio

Baratxuriak

Perrexila

Pikillo piper gorriak

• PAUSOAK:

1) Kazola batean olio berotzen jarriko dugu. Eskuarekin apurtutako zortzi bat baratxuri gehituko dizkiogu, eta baratxuriak kolorea hartu arte utziko dugu. Behin kolorea hartu dutenean, platertxo batera aterako ditugu. Olioari zaporea emanen diogu horrela.

2) Kazola ere sutatik atera olio epeltzen uzteko. Olio pixka bat hozten denean, bakailao zatiak gehituko ditugu, haragiaren aldetik jarrita, eta erdiko suan jarriko dugu. Hemen etengabe kazola mugitzen aritu beharko dugu.

3) 15 bat minutuz eduki beharko dugu bakailaoa sukaldatzen eta kazola mugitzen. Segituan ikusiko dugu nola hasten den bakailaoaren zukua olioarekin nahasten. Haragiaren aldetik egina dagoenean, buelta emanen diegu bakailao zatiei, eta hasieran baztertu ditugun

baratxuriak gehituko dizkiogu orduan.

4) Perrexila txiki-txiki moztu eta bakailaoaren kazolari gehituko diogu.

5) Piper gorriak egiteko, kazolatxo txiki batean jarriko dugu olio berotzen baratxuria xerratan moztuta. Saltsa loditzeko trikimailua bakailaoaren berbera da: baratxuriak frijitzen hasten direnean atera egingen ditugu, kazola sutatik kendu, olio epeltzen utzi eta ondoren gehituko ditugu piperrak. Gero, berriz, erdiko sutan jarriko dugu kazola eta mugimendua emanen diogu saltsa ateratzen hasteko.

6) Dena egina dagoenean, kontuz-kontuz aterako ditugu bakailao puskak, eta pillo piperrak jarriko ditugu ondoan platera aurkezteko.

7) On egin!

▼ Kolore polita eman diogu platerari



▲ Berueteko Edurne Aranok prestatu digu bakailaoa saltsa berdean



Gussstu? Gussstuú!!!

Fotografia honen azpian dagoen ekintzak edo "hechoak" zer esan franko jarri du. Beraz, ekintza horretaz ez dut ihardukiko, nahiko zalaparta atera baitu ni ere horretan sartu gabe. Pentsatzen dut denok izanen zaretela jakitun. Jakitun ez baldin bazarete ere, ez du batere inportantziarik gaurkoan behintzat, beste kontu batez ariko bainaiz, ekintzaileak jarri zuten esaldiaz hain zuzen. Eta horrek honela dio: **Ea hau gustOko duzun, faxista.**

Bost hitz eta oker bat. Okerrak denok egiten ditugu, baina jende aurrera atera behar dugunean, kontuz ibili behar dugu; ahalik eta txukunen, ahalik eta zuzenen.

Eta egia esan behar banu, idazle hori ere prestatu zen, baina okerra ura txorrotatik bezala atera zitzaion, leun-leun. **Ea hau**

gustOko duzun, faxista! Gustoko? Gustoko? Erdaraz ederkiz zekien honek, erdaraz **gusto** izanen da baina euskaraz **gustu** da. **SekretU** bat nahi dizueta esan: **gustU** txarra hartu nion, **gustU** txarra.

Benetan gustu txarra. Erdararen menpe, erdararen morrontzatik ezin atereaz ibiltzen gara. Eman dezagun gauza alderantziz dela, erdaraz, "**Muchu gustu** de conocerte" estaten dugula. Zer gertatuko litzateke? Nik egin nuen proba eta badakit aurrean nuenak nolako aurpegia jarri zuen eta zer esan zidan: **Gussstu? Gussstuú!** burlaka bezala.

Eta euskaraz denean? Nire lagun batek euskarazko idatzi makal baten aurrean hala esan zidan behin: **ez'tik inporta motel, denok ulertu diau. Entendittu eskios aski duk!**

Bai, nire adiskidearentzat dena da berdin; euskaraz, hitz oker batek edo esaldi trakets batek, ez du inportantziarik. Hau egoera bizi duguna!!! Egoera honi kolonialismoa deitzen zaio. Bai, bai, erabat kolonizatuak gaudela, alegia, erdararen morroi, espainolkeriaren jopu!

P.D.

Nolanahi gisa, esan behar da pintatzailea ongi idazten ere saiatsu zela. Guretako zenbatek ez zuen idatziko, esate baterako, **Haber hau gustuku zaizun?** Eta hori, erdara euskaraz mozorrotzeko bakarrik, berez, **A ver hau gustuku zaizun!** baita. **Ea** noizbait hasten garen **a ver** horiek gure ezpainetatik kentzen. **Ea** noiz botatzen dugun kolonoen Infernura **A ver** eta **haber** guzi horiek! Gure guraso nafarrek ez zituzten inoiz ibiltzen.

 Txurdan



Azaro honetan egin pintaketa honek hautsak harrotu zituen.

Hiztegia

Hecho: Garai batean akerkeriari "hechoa" esaten zioten zenbaitzuk. Zorionez, desagertu da hitz hau.

Iharduki: Hitz egin.

Hain zuzen: Precisamente.

Alderantziz: Aldrebes

Jopu: Esclavo.

Zorionak Zorionak !



Zorionak Garbiñe!



Zorionak Andoni!



Zorionak Juanito!



Zorionak Josu!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!

pulunpe@gmail.com



Ana Iraizoz Cires,

errugbian

“Errugbia da hemen jarraitzeko dudan arrazoi nagusienetakoa”

Ana Iraizoz Cires ingelera ikasteko helburuarekin joan zen lehenengo aldiz Irlandara, 2015ean. Herrialdea izugarri gustatu zitzaion, eta, horregatik, hurrengoan ez zen itzuli. Horrela, lau urte darama Greystonesen bizitzen. Haur eskola batean lan egiten du, eta txikitatik kirolaria izandakoa, batez ere errugbian aritzen da han. Bizitzako erabaki hoberenetakoa izan dela dio. Eta, gainera, emaitza oso onak lortu ditu: urteko jokalaria izendatu dute bigarren aldiz entrenatzaileek.

Ana Iraizoz Cires, Eltsoko Sarrajero etxekoa, 28 urte

Zergatik aukeratu zenuen errugbia?

Eskubaloia izan da beti nire kirola, 10 urte nituenetik hasi nintzen horretan, eta asko gustatzen zait. Hemen hondartzako txapelketetan aritzen naiz. Eskubaloian jarraitzeko Dublinera joan behar nuen, gutxienez astean bitan, eta hori denbora asko zen. Orduan iragarki batean Greystoneseko errugbiko emakume taldeak jokalaria bila zegoela ikusi nuen. Segituan idatzi nien eta aste batera haiekin entrenatzen ari nintzen honezkero.

Errugbian jokatzeko zure erabakietako hoberenetakoa izan dela diozu, zergatik?

Bai, errugbiak asko eskaini dit. Hemengo lagunekin batera, bigarren familia bat da niretzako. Zure herrialdetik kanpo, familiarik urrun zaudenean, talde batean egoteak babestuta sentiarazten zaitu. Hain zuzen ere, errugbia da hemen jarraitzeko arrazoi nagusienetakoa. Edozein arazoren aurrean badakizu 30-40 laguneko talde bat duzula laguntzeko prest. Gainera, asteburuetan beti daukat errugbiaren inguruan sortzen den planen bat, oso dibertigarria da.

Eta emaitza onak izan dituzu, bitan urteko jokalaria aukeratu zaituzte.

Oso pozik nago. Egindako lan guztia saritua ikusi dut: gau hotzetako entrenamenduak, bataila batean bazina bezala sentitzen dituzun partidak, moratoiak, lesio txikiak... denak merezi izan du. Oso eskertzekoa da esfortzu hori baloratzen dutela ikustea. Entrenatzaileek nire konpromezua eta gorputz eta arima aritzen naizela nabarmendu dute. Egiari zor, oso gutxitan galduko nuen entrenamendu bat,



Ana Iraizoz errugbi partida batean

Herri kirolak, eskubaloia, errugbia... kirol askotan ibili zara eta berriak probatzen jarraitzen duzu, ezta?

Hori da, pasa den urtean arraunean hasi nintzen. Errugbiko denboraldia bukatu zen eta taldeko kirolen batean jarraitu nahi nuen. Itsasoa 15 minutura dugu eta egun batean entrenatzen ari zirela ikusi nuen, probatzea erabaki nuen. Segituan harrapatu ninduen. Herri Kirolak iradokitzen dizkit hanke eta besoek lan handia egiten dutelako. Pasa den urtean izan nintzen lehenengo txapelketan eta zilarrezko domeinua irabazi genuen.



Ana Iraizoz urteko jokariaren saria jaso berritan



ekoaholkuak

Opariak, zakarrik gabe, eskerrik asko

Zenbat aldiz bete zaigu zakarrontzia urtebetetze, Olentzero edota opariak tarteko zeuden beste ospakizun baten ondoren? Kolore eta mota mota guztietako paperak, plastikozko kutxak, ... Baten batek paperak berrerabiliko ditu ahal duen neurrian, baina beste askok, behin erabili eta zelo zatiak tarteko, zakarrontzian bukatzen dute.

Gabonak gainean ditugu eta oparien inguruko ahots kritikoak entzun arren, etxe gehienetan opariak bere tartea izanen dutela iruditzen zait. Beraz, opariak Amalurra ahal eta gehin errespetatzen dezaten hona hemen hainbat gomendio:

1

Opari ez-materialen aukera aztertu: afari goxo bat eskualdeko ostatu batean, kontzertu batera joateko sarrerak, gogoko duen zerbait egiteko denbora eskaini dituen ardura edota lanetan lagunduz, ...

2

Bertako produktu, artisau eta komertzioaren aldeko aukera egin.

3

Material naturalez egindako produktuak lehenetsi plastiko edota material sintetikoaren aurretik.

4

Gehiegizko bilgarriak dituzten produktuak sahiestu

5

Ez paper berririk erabili oparia apaintzeko! Etxean dituzun eta erabiltzen ez dituzun, paperak, oihal zatiak, arropa zaharrak,... begiratu, irudimena erabili eta bizitza bakarria bilgarri eta hondakin izango diren paperak murriztu.

Eta noski, pentsatu aurreko urtean egin ditugun eta egin dizkiguten opariak izan dituzten ibilbideak. Ziur nago horrek ere pistak emanen dizkizuela!



Lurra



opari tradizionala ▲

Virginia Iragi Ollo, Erripakoa, Auzako bizilaguna:

"Edozein opari eskertzen dut, baina liburuak edo musika, batez ere".

Egiten dituen opariak ingurumenean eragiten dutela uste du: "Plastikozkoak diren jostailuek adibidez egurrezkoek baino gehiago kutsatzen dute". Geroz eta gehiago konturatzen dela onartzen du, dena den: "Nik paperarekin biltzen ditut opariak. Biltzeko erabilitakoa gordetzen dut eta ahal dudana guztia bererabiltzen dut".



Virginia Iragi ▲

Irantzu Legarra Beunza, 'Joshtari' Basaburuko artisaua:

Oihalekin eskuz egindako lanak egiten ditu, batez ere eta gaur egun, are gehiago eskualdean bada, lan artisaua baloratzen dela uste du.

"Hasi naizenetik eta ferietara joaten naizenetik, opariak egiterako orduan, zonaldeko jendeak gugana edo

niregana jotzen duela sumatzen dut. Nik uste dut jendeak zonaldean artisau bat egotea baloratzen duela. Pentsatzen dut toki handietan ere erosiko dutela, baina baloratzen gaituztela uste dut eta eskertzen dute, gaur egun artisau lanak asko baloratzen direlako. Hurbilekoa, gainera, aukera gehiago ematen ditu aldatzeko oso erraz delako eta enkargua ia-ia



▲ Irantzu Legarra



Azken nobedadeak gure apalategietan

Ohitura denez, hilabate bat baino lehenago etorri da liburutegira Olentzero, liburuz betetako zaku batekin, eta hainbat nobedade ekarri dizkigu. Ezin ditugu hemen denak aipatu eta hautaketa bat baino ez dugu egingo, baina gogoratzen dizuegu liburutegiaren blogean aurki dezakezuela informazio guztia: ultzamakoliburutegia.blogspot.com

HELDUENDAKO NARRATIBA

Dendaostekoak (Uxue Alberdi)

Kronika literario honetan Uxue Alberdik mertzeria batean lan egiten duten bi emakumeren istorioa kontatzen digu; edo hobeki esanda haiek, bi emakume horiek kontatzen digute, Alberdik elkarrizketa luze bat egiten dielako. Mertzeria hori, Pitxintxu izenekoa, 70ko hamarkadaren bukaeran ireki zen eta denda berezi xamarra zen, mertzeria izateaz gain liburutegia ere bai baitzen, eta gaur egun ere bada. Dendarenarekin batera egileak eta protagonistek garai horren kronika bat egiten dute. Esaterako Pitxintxun abortatzeko eskubidearen aldeko manifestazioak nola prestatzen ziren kontatzen digute. Liburuan ez da aipatzen, baina Pitxintxu Uxue Alberdiren familiaren denda da, eta orain, gainera, bera hasi da bertan lanean.




Mekanografiak (Harkaitz Cano)

Harkaitz Cano da azken hamarkadetako erreferentzia nagusi bat euskal literaturan eta "Mekanografiak" liburuan Irati Jimenez idazleak eta berak idatzitako hamarka ipuinen artean genero eta formatu ezberdinetako narratiborik onenak bildu ditu: mikroipuinak, fantastikoak, errealistak, metaliterarioak, umoretsuak, gordinak, surrealistikak, satirikoak... Beraz, lan honek Canoren lana eta zehazki bere ipuinak ezagutzeko aukera ematen digu.



Eskuko ekipajea. Euskal ipuin modernoaren antologia (Ibon Egaña)

Antologiak dira bide edo bidezidor on bat egile edo genero batzuetara heltzeko. Liburu hau beste antologia bat da eta berriro ere ipuin generoa du protagonista. Eskuko ekipajea. Euskal ipuin modernoaren antologia honetan Ibon Egañak 25 ipuin hautatu ditu: mikroipuinak eta narrazio luzeagoak, ipuin fantastikoak eta kontakizun gordinak, zientzia fikziozkoak eta errealistak... Eta egileei dagokienez hor daude Iban Zaldia, Karmele Jaio, Arantxa Iturbe, Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Laura Mintegi, Joseba Sarrionandia... Horretaz aparte, Ibon Egañak hitzaurre mamitsu bat egin du hau guztia kokatzeko eta euskal ipuina ezagutarazteko.





OLERKIA

Mugi/Atu (Beatriz Chivite)

Beatriz Chivite, Iruñeko egilea, munduko leku desberdinetan bizi izan da: Chinan, Londresen, Venecian... Esan daiteke nomada moderno bat dela, eta poesiaren medioz egin du bizimodu horri buruzko hausnarketa bat liburu honetan.

Suak pizten direnean (Mikel Soto)

Urteetan editore lanetan aritu ondoren Txalaparta argitaletxean, Mikel Sotok lehen poesia liburu idatzi du. Poemario ausart, zintzo eta emankorra da, bere bizialdiko hainbat mugarri jorratzen dituena: kontzientzia politikoaren piztea, gazte mugimenduan parte hartzea, poliziaren kontrako borroka, atxiloketa, tortura eta epaiketa... Aitortza pertsonala eta generazionala, azken batean.

17 segundu (Kirmen Uribe)

Liburu honek hamazazpi urtez idatzitako poemak biltzen ditu, 2002tik 2019ra. Hamazazpi urte, 17 segundo bezalakoak, Uriberen esanetan: intsumisioaren garaia (kartzelan egon zen Kirmen Uribe), bere bidaiak, Nueva Yorken bizitza...



HAUR LITERATURA

Abentura bat Erroman eta Abentura bat Egipton.

Askotan etortzen dira liburutegira haurrak Erromari eta Egiptori buruzko liburu eske, segur aski eskolarako lan bat egiteko, baina baita mundu eta zibilizazio misterioitsu hauek ezagutzeko gogoz ere. Liburu hauekin modu dibertigarri batean (pasahitzekin, ilustrazioekin, eta abarrekin) egingo dute bidaia hori.

Joemak eta polasak (Iñigo Astiz eta Maite Mutuberria)

Derrigorrez aipatu behar dugu liburu hau. Ez dute egun guztietan Euskadi Sari bat irabazten bi ultzamarrek! Zer da "Joemak eta polasak"? Haien esanetan "ume listoentzat edo heldu tontoentzako poema liburu". Iñigo Astiz idazleak eta Maite Mutuberria ilustratzaileak jolasean eginikoa, poemaz eta ilustrazioez osatua. Zorionak bie!



Patxi Irurzun
Ultzamako liburuzaina



NOBEDADE GUZTIAK

Euskaraz

Hondarrak (Ruben Sánchez)
Aireportuko musika (Luis Garde)
Bahiketa (Asel Luzarraga)
VHS (Oier Guilan)
Ibaiertzeko ipuina (Oihane Amantegi)
Hotz Industrial (Julen Belamuno)
Baginen. Euskal Herriko Historia emakumeen bitartez

Gaztelaniaz

Amianto (Alberto Prunetti)
Mujeres difíciles (Roxanne Gay)
La piel (Sergio del Molino)
Todos estábamos vivos (Enrique Llamas)
Cuentos completos (Lorrie Moore)
Baricentro (Hernán Migoya)
La furia y los colores (El gran Wyoming)
Las niñas prodigio (Sabina Urraca)
Monjas, putas y locas (Fátima Frutos)

Komikia

Mies (Agustín Ferrer Casas)
Primavera en Madrid (Magius)
Haur eta gazte literatura
Hitzen gerra (Gabriel Alejandro)
Jinni & Cooper (Tania Ingram)
Olga eta jatorri misterioitsuko gauza kirasduna (Elisa Gravel)
Kinito egunak (Jabi Elortza)

DVD

Grufaloea
Errementari

2020ko urrian

2020ko urrian gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ANUE Etsain

Hegoi Moreno Ferroni, mutikoa, urriaren 29an sortu zen. Saioa Moreno Ferroni, neskakoa, urriaren 29an munduratu zen. **Abeleneko** Abel eta Veronica dira bixkien gurasoak.



▲ Abel eta Veronica, beren umettoekin

IMOTZ Etxaleku

Oskia Iriarte Beloki, urriaren 28an jaio zen, **Urreondokoan**. Mikel eta Goiuriaren alaba.



▲ Oskia familia handitzera etorria

ULTZAMA Alkotz

Elaia Bertiz Latasa, urriaren 10ean sortu zen **Haizelekun**, Gorka eta Nerearen alabatxoa.



▲ Aimar eta Elaia

Ezkontzak Heriotzak:

ANUE Burutain

Esperanza Egozkue Oiaregi, urriaren 20an hil zen, 88 urtetan, **Berekoetxeko** etxekoandre zaharra.



▲ Esperanza Egozkue

ODIETA Ostitz

Jesus Orokieta Grijalba (Chatarras), **irailaren** 30ean hil zen, 85 urtetan. **Lopeneko** nagusia.



▲ Jesus Orokieta

“Gure oroimenean izanen zarete”

Ilarregi

Pablo Díez de Ultzurrun Arangoa, urriaren 19an hil zen, 82 urtetan. **Kokotxeko** nagusia.



▲ Pablo Díez de Ultzurrun

BASABURUA Jauntsarats

Maria Jesus Muguruza Lazkano, urriaren 11n hil zen, 80 urtetan. **Etxeberriko** alaba.



ULTZAMA Auza

Nemesia Azantza Larrion, mekanikoaren alarguna, urriaren 20an hil zen, 95 urtetan.



▲ Nemesia Azantza

Ilarregi

Eusebio Altuna Eritze, urriaren 4an zendu zen, 95 urtetan. **Erramoneko** nagusi zaharra.



▲ Eusebio Altuna

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2020-2021 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala		
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Musika	Soinugela
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Lur eta Murmur / Paperezko itsasoa	
14:30-15:30	Reggae Fever	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Bertsoinka	Beranduegi (Argia podcast)
15:30-16	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea		
18-19	Hiru Kortxea	Kultur kuboa	Gramofono	Piperpolis	Kolpez kolpe		
19-20		Musika	Musika	Musika			
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Bidasoa Attack	Berria FM/ Dunbala
21-22	Erro ta Berri	Zuria Beltzez	Mestibull	Pentsatu ez sinistu / Ithaka ukatuz	Haus of beats	Musika	Booktegi
22-07	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika

- ESAN ERRAN IRRATIA:** Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika
- ARROSA SAREKO IRRATIAK:** Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia
- EUSKADI IRRATIA**
- EUSKALERRIA IRRATIA:** Metropoli Forala
- BESTEAK....:** Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM